

Nekazak AUZOLANAREN desagerpena Hernanin

JUAN CRUZ ALBERDI COLLANTES



nekazal gunean auzolana izan da herriaren ondarea mantentzeko eta hobetzeko lan egiteko eredu tradizionala. Nekazal guneko baserritarrek erabiltzen zituzten ondare publikoak, bideak bereiziki, hobetzeko erabili izan da auzolana edo auzotarren lana. Auzotarrek edo inguruko baserritarrek, egun jakin batzuetan elkartu eta denak batera, herriko azpiegitura, beraiei auzotar bezala zegokiena, mantendu eta hobetu egiten zuten. Lana, noski ordaindu gabe burutu izan da beti eta denek hartu behar izan dute parte.

- Auzolana Europako leku batzuetan aurkitu izan dugu baina inon ez du izan euskaldunen artean izan duen garrantzia. Herri ondarea ezinbestekoa zuten baserritarrek eta erabiltzaile interesatuek bezala mantentzen zuten.

- Lan ezberdinak burutzeko erabili izan da. Ur-hornidura, baserrien berrikuntzak..., baina bereiziki bideak mantentzeko eta hobetzeko. Harria zabaltzeko hasieran, porlana botatzeko ondoren, bide sastrakak garbitzeko askotan erabili izan da.
- Hernanin, une honetan, auzolana desagertua dago. Hamarkada honen hasieran burutu ziren auzolanez egindako azken lanak. Orduztik ez da auzolanez egindako obrarik burutu. Zenbait eremu zehatzetara (pinudiak) zuzentzen diren pistak konpontzeko erabili izan da baina ez auzolanez egindako obrarik burutu. Donostialdea-Bidasoan ere desagertu da, azken hamarkadan bereiziki. Astigarragan soilik mantendu da eta udalerrri honetan hormigoitu diren azken bideak (Ermaña-Manixene-Otsazulueta) auzolanez burutu dira. Igeldo,



FOTOTECA KUTXA

Oiartzun, Irun eta Hondarribian orain dela hiru urte arte mantendu dute auzolana baina egun leku hauetan ere desagertu da.

Hala ere, auzolanak, Hernaniko udalerrian izugarritzko garrantzia izan du eta bere bitartez burutu dira baserri inguruko bide gehienak. Baserritarrak ardatz desberdinetan antolatuta zeuden, zerbitzu ematen zien bideen arabera. Ardatz nagusienak hauek ziren:

- Galarreta
- Karabel- Portu - Loidi.
- Loidi - Iparragirre
- Loidi - Pardiola
- Loidi - Tolarieta - Aritzalaborda
- Karabel - Akarregi - Martindegi
- Errollaburu - Añua
- Santiago aldera - Telleri
- Alberro - Arrikarte
- Lastaola - Usategieta
- Ereñozu - Alkatzuin
- Olazar - Urmendi
- Zumadi - Juantonenea
- Antziola - Larrabide

Ardatz bakoitzeko baserritar arduradun bat zegoen. Berak kapataz lana betetzen zuen eta, besteak beste, lana antolatu, jendeari deitu eta udaletxeak parte hartzen zuenean berarekin egin beharrekoa adostu. Hasiera batean, nekazariak egiten zuten lan guztia: harria idien laguntzaz ingurutik atera, ondoren denen artean txikitzeko eta bidean zabaldu ahal izateko.

Hirurogeita hamargarren hamarkadarako udaletxea laguntzen hasi zen. Kapatazak udaletxeko basozainekin harremanetan jartzen ziren eta horrela lana antolatzen zuten. Kasu hauetan, udalak zabaldu beharreko harria edo materialea eta ura bideratzeko hodiak ematen zituen. Baserritarrek bidea zabaldu, ubideak ireki eta materialaren garraioa beregain geratzen zen.

Laurogeigarren urtetik aurrera bideak egiteko era aldatu egin zen. Garai horretarako kotxearen erabilpena ugaldtu egin zen eta auzolanez eta harriz burututako bideak ez ziren batere erosoak era horretako erabilpenak mantentzeko.

Garai horretarako Foru Aldunditik bideak pabimentatzeko laguntza ematen hasi zen. Arautegia dirulaguntzekin batera iritsi zen: zabalera 4,5 - 5,5 metro bitarte eta horren barruan ubideak eginak egon behar zuten.



Foru Aldundia eta Udalak ere dirua jartzen hasi ziren. Baserritarrak ere lagundu behar zuen asfaltoaren kostuaren %25a eta modu honetan asfaltatu ziren Hernaniko baserri inguruko bide nagusienak.

Auzolana, hala ere, hasiera batean, mantendu egiten da. Bidea zabaldu behar zen, materialea bota, ubideak ireki eta aurreko hamarkadan gertatu zen bezala, baserritar guztiek parte hartu behar zuten. Askotan, baserritar batek ezin zuenean lanik egin, udaletxeak berak kobratzen zion, normalean eguneko soldata.

Parte hartzen zutenen artean udalak edaria eta batzutan janaria banatzen zuen, hiru txikito ardo hasiera batean, gazta, ogia eta ardoa ondoren.

Laurogeigarren hamarkadan ardatz nagusi hauek asfaltatzeaz eta hormigoitzez bukatzen zen arabera, auzolana gutxitzen zihoan. Adar partikularrak soilik edo herri bidea izanik, baserri bakarrera ematen zuten adarrak geratzen ziren, eta hauek pertsona edo familia bakarrari ematen zioten soilik zerbitzu.

Adar hauek egiteko udalaren aldetik saiakerak eman ziren auzolana berreskuratzeko,



FOTOTECA KUTXA

azken finean, kostu handia zuten lanak baitziren, bideak familia bakarrari egiten baitzion zerbitzua. Beraz, laurogeigarren hamarkadaren hasierarako, salbuespenak salbu, auzolana desagertzen da.

Garai honetarako bideak ez dira egiten, ezta mantendu ere. Lehenago egindako bideen garbiketa edo sastraken mozketa ez da burutzen eta urte askotako ohitura galtzen da horrela.

Laurogeita hamargarren hamarkadan burututako lanak kontrata baten bitartez egin dira. Udalaren eta Behemendi Elkartearen laguntza ekonomikoaren bitartez burutu dira egin diren lan guztiak. Orain bidea prestatu, materila zabaldu, ubideak ireki eta porlana jaurti egiten da baserritarrek eta auzotarrek dirurik eta laguntzarik jarri gabe.

Mantenimenduan ere prozesu berbera eman da eta orain urteroko kanpainen bitartez Udalak eta Behemendik bide ertzetako sasi-mastrakak eta ubideak garbitzen dituzte.

Lehenago lan bateratua, auzotarren giroa, nekazarien izaera hori galdu egin da. Prozesu hau aztertzerakoan galera honen arrazoiak datozkigu burura. Hauek dira, besteak beste, azaltzen zaizkigunak:

- Nekazariak nagusi izan diren bitartean mantendu dute auzolana. Kaleetara jo dutenean edo kaletarrak nekazal gunera joan direnean galdu da herri ondarea mantentzeko beharra. Baserritarrek besteak azaltzen ez zirela ikusten zutenean, beraiek ere ez zuten lan horiekin jarraitu nahi eta udalari egiten zitzaion lan horiek burutzeko arduradun.
- Interes orokorreko bidea, ardatz nagusiena, egin bitartean auzolana mantentzen zen. Denek zuten bata bestearen beharra. Hori egin ondoren baserri bakoitzeko adar txikiak burutu behar zirenean arazoak ematen hasten zen, norberarentzako ez zen bide bat egin nahi ez zelako.
- Elementu bat hartu behar da kontuan eta hau gure baserriaren bilakaeran oinarritua dago. Hirurogeita hamargarren hamarkada bitarte baserriek nekazal jarduera mantentzen zuten, batzuk gehiago edo gutxiago, eta oso gutxi ziren baserritik kanpo bizi zirenak. Garai honetan nekazal jarduera mantentzen duten baserriak oso gutxi dira eta askoz gutxiago baserriaz soilik bizi direnak. Hernanin hauek ez dira hogei baserrietara iristen. Horrela, esan dezakegu baserri ingurua edo nekazal ingurua badugula baina jarduera kanpoan egiten da bereiziki eta kalean edo herrian ikusten diren erosotasunak baserrirako eskatzen dira.

Belaunaldi eta mentalitate aldaketa bat ematen ari da Hernanin eta orokorrean Gipuzkoako nekazal gunean.

Auzolana galdu arren, nekazariak gutxiago izan arren, oraindik Hernanin proiektu bateratuak gauzatzen ari dira. Orain dela hiru urte nekazariak eskatuta, Hernaniko Udalak belar-bolak egiteko makina bat ekarri zuen herrira. Nekazariak antolatuta ziren beraietako bat makinaz eta makinarekin egin beharreko lanetaz arduratuz. Honela, urtean zehar gai honen inguruko erabakiak hartzeko bildu izan dira. Zerbitzuak hiru urte daramazki eta sorrera Hernaniko baserritarren gogoaren ondorioa da. Aurten berrogei baserritar baino gehiagok jaso dute zerbitzu hau eta eredu bihurtu eskualdeko beste herrietan martxan jarri ahal izateko.

Auzolana galdu den arren, baserriaren mundua oraindik, interesak batuak baldin badaude, gai da ekimen bateratuak aurrera ateratzeko. Adibide bezala hor dugu Ereñotzun hune honetan elizan egiten hari diren berrikuntza lanak. ♦